

## **2025eko Bilboko «Film sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren 17. Jaialdiaren oinarriak**

Oinarri hauen helburua Bilboko “Film Sozialak” Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdian parte hartzea arautzea da. Oinarri hauek idatziz onartzea edo zinemaldiak eskatzen duen edozein formatutan filmak inskribatzea edo bidaltzea, plataformetan, zuzeneko bidalketan eta abarretan, egileak edo obren gaineko eskubideak dituenak onartuko ditu.

**Oinarri hauek arretaz irakurtzea eskatzen dugu, jaialdian arazorik ez sortzeko eta filmak helaraziko dizkiguten pertsoneri arazorik ez sortzeko.**

**Izena emateko epea: 2025eko urtarrilaren 1etik maiatzaren 1era**

### **Aurkezpena**

Kultura Communication Desarrollo - KCD GGKE (aurrerantzean, Titularra edo KCD GGKE, aukeran) EAEko Elkartearen Erregistro Orokorrean dago inskribatua —IFZa: G-95550943; helbidea: Beurko Zaharra 3, 38. pabilioia, 12. bulegoa, Barakaldo (Bizkaia) 48902, Espainia—, eta zinemaldi bat antolatuko du, non ohiko zinema-aretoetan normalean proiektatzen ez diren filmak izango baitira ikusgai, askotarikoak eta gizartearekiko konpromisoa aldarrikatzen dutenak.

Bilboko (EAE) «Film sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren 17. Jaialdia antolatzen du KCD GGKEak. Komunikazioaren eta kulturaren bidez garapen gizatiarra, kulturartekoa, bidezkoa eta jasangarria sustatzea du xede KCD GGKE irabazteko azmorik ez duen erakundeak, «Film sozialak» Zinema Ikusezinaren Jaialdia antolatzen duenak.

Urtero egiten da Bilboko «Film sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdia, non ohiko zinema-aretoetan normalean proiektatzen ez diren filmak izaten baitira ikusgai, askotarikoak eta gizartearekiko konpromisoa aldarrikatzen dutenak.

Ezinbesteko hitzordua dute jaialdi hori gizartea eraldatzeko komunikazioaz, zinema sozialaz eta giza eskubideez arduratzen diren guztiek. Bestalde, ikus-entzunezko lanen bitartez gizateriaren zenbait arlo erakusten dizkiguten guztien aintzatespen-eremua ere bada Zinemaldia.

Jaialdiak lau ekintza-ardatz ditu: jasangarritasuna, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna eta giza eskubideak.

2009az geroztik, jaialdiak aniztasuna eta berdintasuna bultzatzen ditu, gure oinarrizko balioen funtsezko osagai gisa. Jaialdian, gutxiengo etnikoetako, erlijiosoetako, genero-identitateko, kultura-gutxiengoetako eta beste batzuetako pertsonen parte-hartzea oso

garrantzitsua da; izan ere, gai publikoetan eta beren herrialdeetako bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalerako alderdi guztietan parte hartzea funtsezkoa da beren nortasunari eusteko eta bazterketaren aurka borrokatzeko.

Hasieratik ere, parekotasun-kuotak eta berdintasunaren aldeko ekimen positiboak baliatzen ditu jaialdiak alor guztietan: lanen hautaketa eta hedapena, emakume zinemagileen partaidetza, epaimahaikideen aukeraketa eta abar.

Jaialdiak 13 kategoriatan banatuko ditu sariak, guztira 22.250 euro. Estrategia hori ez da lehiakortasuna sustatzeko, baizik eta zinema soziala egiten dutenei laguntzeko.

*Bilboko Alondegiko Azkuna Zentroa* du egoitza nagusia Zinemaldiak; zehazki, han dauden *Golem zinema-aretoak*. **Data ofizialak, berriz, hauek ditu: 2025eko urriaren 16tik 23ra.** Dena dela, abuztuan eta irailean ere egingo da zenbait sustapen-proiektzio, zeinak ere sartuko baitira lehiaketan, ikusleen botoak jasota. Zinemaldian saritutako lanak urriaren amaieran eta azaroaren hasieran proiektatuko dira berriro. Gutxienez 30 lekutan jarriko dira ikusgai filmak, eta horietatik 19 Euskadiko hezkuntza formaleko institutuak dira, Batxilergokoak eta Lankide Heziketakoak.

Zinemaldian Zine Foruma egiten da, eta, horretarako, antolatzaileek Bilbora joateko gonbita egiten diete munduko hainbat tokitako zinemagile eta zuzendariei.

2015etik aurrera, Jaialdiak Garapen Iraunkorrerako Agenda 2030ekiko eta Nazio Batuek proposatutako 17 helburuekiko konpromisoa du.

## 1. Nork har dezake parte lehiaketan?

Munduko edozein lekutako pertsonak zein herritarrek har dezakete parte lehiaketan, edozein dutela ere jatorria edo nazionalitatea. Adingabeek, berriz, dagokien pertsona helduaren baimena behar dute (gurasoak, legezko tutoreak...).

Lan bat edo gehiago aurkez ditzake pertsona edo talde bakoitzak, betiere egile- edo banaketa-eskubideen jabe badira. Jaialdiak ez du bere gain hartzen alor horri dagozkion arau-hausteen erantzukizuna.

Oinarri hauetan deskribatutako sailkapenen batean sartzen diren euskarri digitaleko filmek ere har dezakete parte lehiaketan, bai eta beste jaialdi edo eremu batzuetan proiektatutako lanek ere.

Ezin dute parterik hartu aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak.

**Zinemaldiak eskatzen duen edozein formatutan filmak inskribatzeak edo bidaltzeak berarekin dakar oinarri eta baldintza hauetako termino guztiak onartzea, erreserbarik gabe.**

## 2. Nola eman izena eta nola bidali lanak:

Jaialdian parte hartzeko, online eman behar da izena, haren antolatzaile den KCD GGKE erakundearen webgunean duzuen inprimakia beteta: <https://www.kcd-ongd.org>

Ikusteko fitxategia MP4 formatuan entregatu behar da, ahalik eta bereizmen handienarekin (1080p eta hortik gorakoak).

Euskarri digitalean zein fisikoan bidal daitezke lanak. **Parte-hartzaileek ordaindu behar dituzte lanak bidaltzeko eta itzultzeko gastuak.**

**Jaialdiak ez du proiektiorako obrei dagokien DCPrik onartuko.**

Ez dira onartuko lanak baldin eta dagokien dokumentazioa ez bada bidali antolatzaileek ezarritako epearen barruan.

### a) Nola bidali lanak Internet bidez

Hona lanak Internet bidez bidaltzeko dauden aukerak:

- [www.festhome.com](http://www.festhome.com) eta [www.clickforfestivals.com](http://www.clickforfestivals.com) atariak (HD kalitatea onartzen dute).
- Vimeo edo Youtube, iraungitze-datarik gabeko deskarga-baimenarekin, esteka honetara: [cineinvisible@kcd-ongd.org](mailto:cineinvisible@kcd-ongd.org).
- Dropbox, Myairbrigde, Mega, Wetransfer eta antzeko plataformen bidezko deskarga-estekak, helbide honetara: [cineinvisible@kcd-ongd.org](mailto:cineinvisible@kcd-ongd.org).

### b) Bidalketa fisikoak (DCP izan ezik)

- Posta arruntez, helbide honetara:

**«Film sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren bulegoa**

Kultura Communication y Desarrollo KCD GGKE

Innobak eraikina - Inguralde Beurko Zaharra 3, 38. pabilioia, 12. bulegoa

48902, Barakaldo - Bizkaia, Espainia

**Ohar garrantzitsua:** Nazioarteko bidalketetan, idatzi gutun-azalean

«BALIO KOMERTZIALIK GABEKO ERAKUSGAIA. ERABILERA KULTURALERAKO DA, SOILIK»

- KCD GGKEak egoki deritzen beste bide batzuk, dagokienean jakitera emango dituenak.

Jaialdiaren antolatzaileen irizpideen arabera bakarrik sar daitezke lehiaketan **2025eko maiatzaren 1a baino geroago** bidaltzen diren lanak, aipatutako baldintzak betetzen ez dituztenak eta/edo behar den dokumentazioa ez dutenak.

**Jaialdiak ez dio inolako kontraprestazio ekonomikorik ematen parte hartzen duen lana inskribatzen duen edo haren gaineko eskubideak dituen pertsonari, lehiaketako lana inskribatze edo hautatze hutsagatik.**

### 3. Zer dokumentazio aurkeztu behar den

Dokumentazio hau aurkeztu behar dute parte-hartzaileek:

- a) Zuzendariaren edo zuzendarien argazkia.
- b) Zuzendariaren edo zuzendarien curriculuma eta filmografia.
- c) Lanaren kartela.
- d) Lanarekin lotura duten hiru fotograma edo argazki, ahalik eta kalitaterik onenekoak. Jasotako argazkirik onenek honetarako aukera dute:
  - Jaialdiko kartelaren irudi nagusia izateko.
  - Bilboko metroko geltokietan ikusgai jarriko den erakusketan parte hartzeko (erakusketaren gaia: 2025eko Bilboko «Film sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdia).
- e) Fitxa tekniko handituan azaltzeko, jaialdiak erabakitzen duen euskarrian.
- f) Obra proiektatzeko bertsioa egiteko (ahalik eta kalitate-mailarik onena, eta ur-markarik gabea).

### 4. Zer baldintza bete behar dituzten lanek

Oinarri eta baldintza hauek bete behar dituzte lanek, onartuak izan daitezen:

- Zinemaldiaren lau gai-multzoetako bat —gutxienik— jorratu behar dute.
- Fikziozko lanak, animaziokoak eta dokumentalak aurkez daitezke (film laburrak, ertainak zein luzeak).
- Jatorrizko hizkuntzan aurkeztu behar dira lanak. Hizkuntza hori ez baldin bada ez gaztelania ez euskara, bi hizkuntza horietako batean azpitulatu behar dira (euskaraz edo gaztelaniaz).
- **2023ko urtarrilaren 1a baino geroago eginak behar** dute izan aurkezten diren lanek.

### 5. Zinemaldiaren kategoriak

**Lau gai-arlo** hauetan banatzen ditu zinemaldiak hautatutako lan guztiak:

- **Jasangarritasuna:** zenbait garapen-ereduren inpaktu sozial, politiko, ekonomiko eta ingurumenekoei buruzko ikus-entzunezko lanak, eta gizakion ongizateari eta jasangarritasunari laguntzen dioten proposamen alternatiboei buruzkoak.
- **Genero-berdintasuna:** berdintasunaren kultura eraikitzen laguntzen du, eta gizartean genero-berdintasunaren aldeko tresnak sortzen ditu. Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunari buruzko gogoeta eta pentsaera kritikoa bultzatzen dute sail horretako lanek, eta/edo sistema patriarkalarekiko eredu alternatiboak proposatzen.

- **Kulturartekotasuna:** munduko kulturen aberastasuna eta aniztasuna erakusten dute lanek, bai eta hauekin lotura duten zenbait gai ere: giza migrazioak; kultura desberdinetako jendearen arteko bizikidetzak; arrazismoagatik, segregazioagatik, xenofobiagatik eta beste diskriminazio-modu batzuegatik egindako salaketak.
- **Giza eskubideak:** giza eskubide indibidual eta kolektiboen sustapenari eta bermeari buruzko ikus-entzunezko lanak, bai eta oinarrizko askatasunen aldeko borrokari buruzkoak ere. Kategoria horretan sartzen dira, halaber, korrante politiko autoritario, elitista, arrazista, xenofobo, LGTI+fobo eta edonolako diskriminazio-motaren aurkako jarrera sustatzen duten lanak, bai eta pobrezia eta gizarte-bazterketa eragiten duten zergatiak salatzen dituztenak ere.

## 6. Lanak hautatzeko irizpideak

Emakume- eta gizon-kopuru bera izango du Zinema Ikusezinaren Jaialdiko Hautaketa Batzordeak, Zinemaldiko lanak aukeratuko dituenak, alegia.

Irizpide hauen arabera hautatuko dira lanak:

- Zinemaldiaren gai nagusiei egokitzea.
- Kalitate teknikoa.
- Zinemaldiaren xede diren ikusleei egokitzea.

Irizpide horiek alde batera utzi gabe, **ekintza positiboak** egingo dira hautaketan, honako lan hauek ere sartzeko:

- Munduaren hegoaldeko herrialdeetako zuzendariek egindakoak.
- Emakumeek zuzendatutakoak.
- Euskaraz egindakoak.
- Entzuteko desgaitasuna dutenentzako azpituduluak eta/edo autodeskribapena dituztenak.

Edozein dela ere lanen kategoria, zinemaldiaren hautaketa-batzordeak erabakiko du zein kategoria dagokien. Apelaezina da batzordearen erabakia.

2025eko uztailaren amaieran jakinaraziko zaie parte-hartzaile guztiei hautatu dituzten ala ez beren lanak. **Behin obra jaialdian onartu dela jakinarazita, ezin izanen da jaialditik kendu.**

Jaialdiaren programazioa prestatutakoan, proiektzioak non eta zer egunetan izango diren jakinaraziko zaie hautatutako lanen zuzendariei (**2025eko irailean**, gutxi gorabehera).

Hautatutako lanen egileak proiektioetara joateko baliabideak jarriko dira (garraio-, ostatu eta mantenu-gastuak bere gain hartuko ditu zinemaldiak), baldin eta antolatzaileek egoki irizten badiote edo horretarako dirurik badauka.

## 7. Epaimahaia

Genero-berdintasuna sustatzearren, **emakumeak izango dira epaimahaiko kideen % 66**. Jarduera hauetan diharduen jendeak osatuko du epaimahaia: garapenerako

lankidetzeta eta elkartasuna, ikus-entzunezkoa eta komunikazioa, eta beste zenbait alor sozial, kultural eta artistiko. Kategoria guztietako sariak banatuko ditu epaimahaiak, Balio Hezkuntzaren Saria, Ikusleen Saria eta Zinema Ikusezina Saria izan ezik. Apelaezinak dira kategoria guztietako erabakiak.

## 8. Sariak

### 8.1. Ohar orokorrak

Kasu guztietan, inongo lehiakideri eman gabe gera daitezke jarraian deskribatuko diren sariak, egoera zein den.

Eskudirutan ematen diren sariei, berriz, Espainiako legeriaren zergak eta erregulazioak dagozkie (BEZa edo PFEZ).

### 8.2. Zer diru-kopuru jasoko duten sarituek

Bilboko "Film Sozialak" Nazioarteko Zinema Ikusezinen Jaialdiak 13 sari emango ditu guztira; horietatik 9k BI MILA EUROKO (2.000 euro) zuzkidura ekonomikoa izango dute, nahiz eta erakundeak kopuru hori aldatzeko eskubidea gordetzen duen, kasuan kasuko erakundeen ekarpenen arabera. Eta beste 4 sari, diru-kopuru zehatz batekin, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateko ikasle eta Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasle gazteei Gizarte Zinema egitera bultzatzeko.

Hautatuak izan diren gai-multzoko sarirako gehi aipatu ditugun sarietarako lehiatuko dira aukeratutako lanak, eta filmen zuzendariei emango zaizkie sariak, inskripzio-fitxan jasotako datuen arabera.

Hona zer sari banatuko diren:

- Bosgarren atalean deskribatutako gai-multzoei dagozkienak:
- **Jasangarritasuna** kategoriako saria.
- **Genero-berdintasuna** kategoriako saria.
- **Kulturartekotasuna** kategoriako saria.
- **Giza eskubideak** kategoriako saria.
- Kategoria hauetako sariak ere banatuko dira:
- **Emakume batek egindako Lan Onenaren Saria:** emakume zinemagileen ikusgaitasuna sustatzen du sariak, eta haien partaidetza handiagoa ikus-entzunezko komunikazioan, lan bakoitzak jorratzen duen gaiaz landa. Zinemaldiko edozein gai-multzotan esku hartzen duten emakumeek zuzendutako edo kozuzendutako lan guztiak sartzen dira.
- **Euskaraz egindako Gizarte Ekintza Onenaren Saria:** euskaraz egindako eta/edo azpitolatutako lan guztiak sartzen dira, edozein gai-multzotakoak direla ere. Ez dira sartzen kategoria horretan gaztelaniaz egin eta euskaraz azpitolatutako lanak. Euskaraz ez ezik beste hizkuntza batzuetan ere egindako lanei dagokienez, zinemaldiaren antolatzaileek erabakiko dute kategoria horretan sartzen diren ala ez.

- **Zinema Ikusezinaren Saria:** euskaraz zein gaztelaniaz egindako lan guztiak sartzen dira, edozein gai-multzotakoak direla ere. Sariaren helburua: zuzendari baten lana sustatzea, jaialdiaren irizpideei jarraikiz.
- **Balio Hezkuntzaren Saria:** jaialdiaren egoitza diren batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeetan proiektatzen diren lanak sartzen dira, edozein gai-multzotakoak direla ere. Film laburrak bakarrik proiektatzen dira ikastetxe horietan. Helburua: zinema soziala, balio sozialak eta pentsaera kritikoa sustatzea ikasleen artean. Ikasleek erabakitzen dute, bozketa bidez, zein den filmik onena.
- **Ikusleen Saria:** ikusleen partaidetza sustatzea du xede kategoria horrek, non lanak baloratzeko eta botoaren bidez beren zuzendaririk gogokoena hautatzeko aukera ematen baitzaie jaialdiko ikusleei. Ikastetxeak ez diren egoitzetan proiektatutako lehiaketako lan guztiak sartzen dira kategoria horretan (sari propioa dute ikastetxeetan proiektatzen direnek).

## 9. Datuen babesa eta konfidentzialtasuna

Oinarri hauei jarraikiz tratatutako da —soil-soilik— ematen den informazioa eta, ahal den neurrian, datuen konfidentzialtasun zorrotza bermatuko da lehiaketako proiektuen hedapenari eta partaidetzari dagokienez. Honetarako tratatuko ditu KCD GGKEak lehiaketan esku hartzeko emandako datu pertsonalak: lehiakideen partaidetza kudeatzeko eta, hala badagokio, sariak esleitzeko. Lehiaketa amaitu eta hurrengo sei urteak igaro arte gordeko dira jasotako datu pertsonalak, sor daitezkeen lege-erantzukizunei aurre egiteko.

Noiznahi balia ditzake interesdunak datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, tratamendua mugatu, aurkaratu eta beste operadore batera eramateko eskubideak, oinarri hauen hasieran ageri den helbidera zein [info@kcd-ongd.org](mailto:info@kcd-ongd.org)-era idatziz, 94 602 46 68 telefonozenbakira deituz edo helbide honetara joz: KULTURA, COMMUNICATION Y DESARROLLO «KCD», Beurko Zaharra 3, 38. pabilioia, 12. bulegoa. PK: 48902 - Barakaldo.

Hala behar izanez gero, dagokion nortasun-agiriaren kopia eskatuko da, datuen segurtasuna bermatzearren. Noiznahi balia ditzake interesdunak bere eskubideak, datu-babesaren alorrean eskuduna den agintaritzaren aurrean.

## 10. Jabetza intelektual eta industrial, eta irudi-eskubideak

Espresuki adierazten dute parte-hartzaileek lehiaketara aurkezten dituzten bideoen jatorrizko egileak direla, bai eta haien irudi, gidoi eta musikarenak ere. Debekatuta dago hirugarren batzuek egindako lanak aurkeztea, bai argitaratu gabeak, bai argitaratuak, bai hirugarrenen batek haien gaineko eskubideren bat duenak. Debekatuta dago, halaber, hirugarren batzuen jabetza intelektualak edo industrialak osorik edo partez babesten duen filmik aurkeztea. KCD GGKEak ez du bereganatzen inongo erantzukizunik aurkezten diren lanek ez badituzte betetzen baldintza horiek.

Honenbestez, hori guztia adierazi duen parte-hartzaileak baimena ematen dio KCD GGKEari jasotako lanak eta parte-hartzaileen izen-deiturak, irudia eta ahotsa erreproduzitu, erabil eta hedatu ditzen, osorik zein partez, eta egoki deritzon modura aldatu eta egokitu, lehiaketa honekin edo KCD GGKEarekin lotura duten publizitate- eta/edo sustapen-jarduera orotan, edozein hedabidetan, Internet ere barne dela. Jarduera horiek ez diote ematen interesdunari inongo ordainik edo etekinik eskuratzeko, oinarri hauei jarraikiz irabazten duen saria jasotzekoa izan ezik.

Zehazki, hautatutako lanen gaineko eskubideak dituzten pertsonek zein erakundeek espresuki ematen diote honetarako baimena KCD GGKEari:

- Publikoaren aurreko erakustaldi irekietan aurkeztutako lanak, argazkiak eta mugimenduan diren irudiak erreproduzitu, ikuskatu eta proiektatzeko, jaialdian esku hartzen duten bitartean behar bezainbat aldiz, barne direla zinemaldia hasi aurreko sustapen-proiektzioetakoak eta hura amaitu orduko egingo direnetakoak.
- Zinemaldian ikusteko eta erakusteko behar diren euskarrietara lanak egokitzeko.
- Jatorrizkoaz bestelako hizkuntzetara lanak bikoizteko eta/edo azpigituluak jartzeko.
- Lanaren irudiak eta/edo zatiak erabiltzeko zinemaldia sustatzeko ikus-entzunezkoan, prentsa-txostenean, informazio-karteletan eta/edo zinemaldiaren webgune ofizialean, haren sustapen-lanak egiteko.
- Lehiaketarako hautatutako lanetako materiala erabiltzeko jaialdiari buruzko ikus-entzunezko materialak eta inprimatuak sustatzeko eta hedatzeko (katalogoa, sustapen-iragarkia, Interneteko webgunea, erakusketak).

Kultura, Communication y Desarrollo KCD GGKEaren artxibategian gordeko dira lehiaketara aurkeztzen diren lanak. Hautatutako lanetakoren bat jaialditik landa erabiltzen badu KCD GGKEak kultura- edo hezkuntza-eginkizunetarako, lanaren zuzendariari berriazko baimena eskatu behar zaio, aldeztu aurretik, eta kontratua sinatu harekin.

## 11. Lanak ikusteko baldintzak

Sail ofizialetako programazioa presentziala izatea da Bilboko «Film sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren asmoa. Proiektzioak presentzialki egiterik ez badago, online egingo dira.

**Online egingo dira palmareseko filmen proiektzioak (aurtengo jaialdia irabazi dutenenak, alegia), edozein dela ere egoera, antolatzaileek erabilgarri duten «Film sozialak» onlineko streaming-plataformaren bidez.**

Onlineko proiektzioak egiteko, erregistratu egin behar da webgunera sartzeko; denbora-epaia, berriz, mugatua da.



## 12. Iruzurrezko partaidetzak eta lehiakideak deskalifikatzeko beste zenbait arrazoi

Anomaliaren bat detektatzen bada, edo edozein prozedura tekniko edo informatikoren bidez partaidetza legez kanpo aldaraziz edo oinarri hauek beste zeinahi eratara urratuz parte-hartzaileraren bat lehiaketaren jarduera normala oztopatzen ari dela susmatzen, jaialdiak alde bakarrez erabaki dezake parte-hartzaile hori lehiaketatik kanpo uztea. Apelaezina da jaialdiaren erabakia.

Beste era batera esanda, eskubidea du KCD GGKEak edozein parte-hartzaile deskalifikatzeko, baldin eta irregulartasun-susmorik edo -frogarik badago.

Ez da onartuko eduki iraingarririk, indarkeriazkorik edo jende arruntaren sentsibilitatea urra dezakeenik, ez eta legearen kontrako jarduerarik bultzatzen duenik ere. Eskubidea du KCD GGKEak parte-hartzaile hauek lehiaketara ez onartzeko: irudi desagokiak dituzten lanak eta estetikarekin, etikarekin eta gustu onarekin bat ez datozenak egin dituztenak.

## 13. Erantzukizunik ez

KCD GGKEak ez du inolako erantzukizunik bereganatuko etenik edo akatsik gertatzen baldin bada lehiaketan parte hartzeko eskabidea egiteko prozesuan.

KCD GGKEak ez du inolako erantzukizunik bereganatuko parte-hartzaileraren bat lehiaketatik kanpo geratzen bada lehia atzeratzearen eta, horrenbestez, zegokion epetik kanpo egitearen ondorioz.

Halaber, KCD GGKEak ez du inolako erantzukizunik bereganatuko parte-hartzaileek ez badituzte lege-arauak eta oinarri hauek betetzen.

Bestalde, irabazleren batek sariari uko egiten badio, ez du eskubiderik inolako kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko.

## 14. Baldintza orokorrak

**Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar erabat onartzea oinarriak eta KCD GGKEaren irizpideak haien interpretazioari eta sor daitezkeen gorabehera ororen konponbideari dagokienez.**

Eskubidea du KCD GGKEak oinarri hauen ordeztzeko beste batzuk ezartzeko, hala behar izanez gero.

Eskari hauei aplikatuko zaizkie oinarriak: haiek onartzen diren egunetik aurkezten direnei, betiere horretarako epearen barruan. Epea luzatzea erabaki dezake KCD GGKEak.

Espainiako legeria dute gidari oinarriek eta lehiaketak, eta Bilboko auzitegi eta epaitegietara joko dute parte-hartzaileek eta KCD GGKEak baldin eta auziren bat sortzen bada lehiaketa dela eta. Bestalde, berariaz egiten diote uko alderdiek beste zeinahi foruri, legeak besteren bat agindu ezean.

Bilbon, 2024ko abenduaren 31n.

## KOMUNIKAZIOA

Honako dibulgazio-tresna hauek ditu jaialdiak:

Webgunea: <https://www.kcd-ongd.org>

Twitter: @KCDONGD

Facebook: @CineInvisibleBilbao

Instagram @kcdongd

Tel.: +34 946024668

Helbide elektronikoa: [cineinvisible@kcd-ongd.org](mailto:cineinvisible@kcd-ongd.org)